

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. LANGABEZIA ETA GIZARTE BABESIK EZA GEHITZEN DUTEN MURRIZKETA ETA ERREFORMA GEHIAGORIK EZ!
2. PENSIOEN ERREFORMA= EROS AHALMENEAN GALERA= POBREZIA GEHIAGO
3. EZ DAGO BEHARRIZAN SOZIALETARAKO DIRURIK, BAINA BAI FINANTZA SEKTOREA LAGUNTZEKO
4. ENPLEGU POLITIKAK AZPIKONTRATATUTA JARRAITZEN DU NAFARROAN
5. PROPOSAMENA: ZORRETAN EZ BAGAUDE, EZ DUGU ORDAINDUKO!!! ZORRAREN HERRI-AUDITORIA ORAIN!!!

**1. LANGABEZIA ETA GIZARTE BABESIK EZA
GEHITZEN DUTEN MURRIZKETA ETA
ERREFORMA GEHIAGORIK EZ!**

Enplegurako Zerbitzu Publikoak argitaraturiko langabeziari buruzko datuak oso txarrak dira berriro ere, Hego Euskal Herrian irailean 226.893 langabe egon direla baitiote, abuztuan baino 3.061 gehiago eta duela urte bete baino 13.077 gehiago.

Langabe kopurua %6,1 igo dela urte betean adierazten du honek, 28-EBko ia bikoitza (%3,4), eta han ere ematen ari da egungo krisi ekonomikoaren garaia. Era berdinean, langabezia tasa %17,5ean kokatzen da Hego Euskal Herrian, 28-EBkoa (%10,9) baino 6,6 puntu altuago. Espainiar estatuak (%26,2) eta Greziak (%27,9) bakarrik dute langabezia tasa altuagoa.

Gainera, ia langabeen erdiak (%45,2) ez du inolako langabezia saririk jasotzen, eta %34,7ak soilik jasotzen dute kotizaziopeko prestazioa.

679,242 lan kontratu ziren urteko lehen 9 hiru hileetan Hego Euskal Herrian, eta 42.515 bakarrik izan ziren behin-betikoak, hau da, %6,3a baino ez.

Etengabeko murrizketa eta erreformek, langabezia, pobrezia eta gizarte babesik eza areagotzen dute. Langabezia tasa eta hauen hazkundeak handiagoak dira murrizketa eta erreforma sakonagoak ematen ari diren tokietan, eta beraz, hauek gelditu beharra dago.

**2. PENTSIEN ERREFORMA= EROS
AHALMENEAN GALERA= POBREZIA GEHIAGO**

Irailaren 27an pentsioen iraunkortasun faktorea moldatzeko eta pentsioak eguneratzeko indizearen lege proiektua onartu zen, premiazko tramitea erabilia.

Lege proiektua ekainean adituen batzordeak eman zituen gomendioekin bat dator. Bizi-itxaropena luzatu egingo delako aitzakiaz, pentsiodunak gero eta gehiago direla eta pentsioetako gastua handiegia dela abiapuntutzat hartuta, "iraunkortasun faktore" delakoa pentsioen doikuntza egiteko tresna iraunkor bihurtu nahi dute; pentsiodun berriei eragingo die, baina baita orain arte zeudenei ere. Esanguratsuena, pentsioak eguneratzeko indize berri bat ezartzea da, KPlaren erreferentzia kolpe batez deuseztatzen delarik.

Agerian geratu da benetako asmoa, hots, pentsio berriak txikiagoak izatea eta pentsioak KPlaren arabera eguneratzeko betebeharrak legala kentzea.

a) Pentsio berriak txikiagoak izango dira

Iraunkortasun Faktorearen oinarria da esatea gero eta urte gehiagok bizi izango garela, eta horrenbestez, "pentsioaren zenbatekoa moldatu egin behar da bera jasoko den denbora-eparean arabera". Hots, pentsio berriak urtetik urtera txikiagoak izan behar dira. Bizi-itxaropena gehitu ahala, are gehiago murriztu behar dira pentsioak.

Hain zuzen, Iraunkortasun Faktoreari dagokionez, hauek dira Gobernuak ezarritakoak:

- 2019tik aurrera aplikatzea. Urte horretan eragingo die pentsio berriei.
- Bere edukia bost urtero berrikustea.
- Murrizte portzentajeei buruz, adituen taldearen txostenak finkatutakoa onartu egiten da (pentsio berriak mailaka jaistea proposatzen zuen, 2050 urteko %20raino). Gobernuak lehen urteetan, urtero % 0,47ko jaitsiera metatuan zehazten du.

b) Pentsioak eguneratzeko indizea

Gobernuak erabaki du pentsioak KPI adina

gehitzeko betebeharrak legala kendu egingo duela. Eguneratze indize berri bat ezartzen da, urtero aurrekontu legean zehaztuko dena eta oinarritzat gizarte segurantzaren diru sarrerak eta pentsio kontributiboen kopurua aintzat hartuko duena.

Helburu teorikotzat *“pentsio bat jasotzen duten pertsonen konfiantza, lasaitasuna eta ziurtasuna”* emate aldera, hau da ezartzen dena:

- Gehienezko muga KPI+%0,25 izatea, eta gutxienezkoa, %0,25ekoa.
- Indize berri hau 2014tik aurrera aplikatuko da.

Datozen urteetan pentsio guztiek erosteko ahalmena galduko dute, igoera %0,25ekoa izango baita, Rajoyren gobernuak hala zehaztu du 2014rako Aurrekontu proiektuaren aurkezpenean.

ELAk ez du pentsioak areago murrizteko hartu den erabakia onartzen:

- I. Ezin da onartu eman gobernuaren proposamena ezagutzera eman ez izana. Gizartean eztabaida saihestu nahi dute horrela.
- II. 2014tik aurrera pentsiodun guztiek erosteko ahalmena galtzea da helburua. Gaur diru-sarrera eskasekin bizirauten ari den herritar asko eta asko areago pobretzeko estrategia da hau. Joan den uztaillean kotizaziopeko pentsioen batezbesteko zenbatekoa 975 euro zen Nafarroan, eta 1.058 euro EAEn. Pertsona hauek erosteko ahalmena etengabe galtzea zigortu nahi dituzte, datozen urteetan pentsioak %0,25 baino ez baitira igoko. Honela pentsiodunentzako beharko luketen diru kopuru handiak ez zaizkie iritsiko (%1eko igoera 1.000tik gora milioi dira urtean).
- III. 2019tik aurrera pentsio berriak murriztu egingo dira, eta murrizketa %20ekoa ere

izan liteke, adituen batzordeak esan zuen moduan.

- IV. Politika honekin pentsiodunen diru-sarrerak urriagoak izatea nahi dute, eta finantza-erakundeek pentsio pribatueta duten negozioa bultzatu.

Horrenbestez, ELAk hau eskatzen du:

- Ez dadila pentsioen beste murrizketarik egin, eta azken urteetan ezarri diren erabakietan atzera egin dadila, pentsio berrien zenbatekoa murriztu eta pentsiodunen erosteko ahalmena moztu baitute.
- Pentsioei buruzko legedia Euskal Herrian erabaki dadila.
- Hego Euskal Herriko erakundeek berma diezaietela pentsiodunei eta etorkizunean pentsio bat jasoko dutenei diru-sarrerak ez zaizkiela murriztuko, erreforma gauzatuz gero. Horretarako pentsiodun guztiei osagarri bat bermatu behar zaie, hartutako erabakiek eragindako diru-sarrera galeraren adinekoa.

ELAk pentsio-erreformen aurkako mobilizazioak egin izan ditu; aldarrikapen hauek, esaterako, 2011ko eta joan den maiatzaren 30eko greba orokorretan plazaratu ditu. Gizartearen mobilizazioa da politikak aldarazteko bidea, eta horri jarraituko diogu. Horregatik, eragile sozial eta sindikal ezberdinek urriaren 19an ospatuko dugun manifestaldietan parte hartzeko dei luzatzen dugu.

3. EZ DAGO BEHARRIZAN SOZIALETARAKO DIRURIK, BAINA BAI FINANTZA SEKTOREA LAGUNTZEKO

Lehiakortasunerako Nazio Batzordeak “Espainiako Laguntza Publikoei buruzko Urteko V. Txostena” argitaratu du, 2011 ekitaldian espainiar

gobernuak emaniko laguntza publikoen zenbatekoari buruzko informazio garrantzitsua ematen duena, eta baita hauen izaerari buruzkoa ere.

Espainiar gobernuak 2011 ekitaldian 89.162,44 milioi euro bideratu zituela enpresak laguntzera erakusten du txostenak, hau da, BPGaren %8,3. Zenbateko honen barruan dagoena aztertzen badugu, 4.531,79 milioi (guztiaren %5,08) ohiko laguntzak izan zirela ikus dezakegu, eta 84.630,65 (%94,92) krisiaren aurkako laguntzak; hauen barnean, 435,47 milioi (guztiaren %0,49) enpresak orokorrean laguntzera bideratu ziren, eta 84.195,18 (%94,43) finantza sektoreko enpresak laguntzera. Hau da, krisiari aurre egiteko helburuarekin finantza sektoreari emaniko diru laguntzek, 2011 ekitaldian espainiar gobernuak emaniko diru laguntzen ia osotasuna suposatuz, BPGaren %7,84eko portzentajera helduz. Finantza sektoreko enpresek osasungintzako aurrekontu osoa (BPGaren %6,8) edo hezkuntzako (BPGaren %4,77) baino diru gehiago jaso zutela gogorarazteak pena merezi du.

ESTATUTIK JASOTAKO DIRU LAGUNTZAK.
ESPAINIAR ESTATUA, 2011

	Milioi €	Guztiaren %	BPG %
Finantza sektoreari laguntzak	84.195,18	%94,43	%7,84
Behin-behineko laguntzak	435,47	%0,49	%0,04
KRISIAREN AURKAKO LAGUNTZAK	84.630,65	%94,92	%7,88
ESTATUAREN OHIKO LAGUNTZA K	4.531,79	%5,08	%0,42
GUZTIRA	89.162,44	100%	%8,30

Iturria: Lehiakortasunerako Nazio Batzordea

Finantza sektorera bideraturiko laguntza publikoen tamaina (BPGaren %7,84) 27en Europako Batasuneko batezbestekoarekin alderatzen badugu (%4,72), Estatuan 27-EBn baino BPGaren 3,12 puntu gehiago bideratu zirela ikus dezakegu, eta honek, finantza erakundeek Estatutik 27-EBko esfortsu berdina eginda baino

32.100 milioi euro gehiago jaso zituztela esan nahi du.

Egungo krisialdi ekonomikoaren garaiak diru laguntza hauen hazkunde azkarra ekarri du. Zehazki, hauen pisua 2011 ekitaldian (BPGaren %7,84) asko igo da 2009tik (%5,40), eta batez ere, 2008tik (%0,21), nahiz eta zerbait jaitsi den 2010 ekitaldiarekiko (%8,19).

FINANTZA SEKTOREARI LAGUNTZEN BILAKAERA
DENBORAN (BPG %). ESPAINIAR ESTATUA, 2008-
2011

2008	2009	2010	2011
%0,21	%5,4	%8,19	%7,84

Iturria: Lehiakortasunerako Nazio Batzordea

Finantza sektoreari emandako gehiegizko eta baldintzarik gabeko laguntza hau ez dator bat espainiar gobernuak beste materietan burutzen ari den etengabeko murrizketekin. Nahikoa da 2011 ekitaldian finantza sektoreari emaniko 84.195,18 milioi euroak pentsioetan azken murrizketekin 2014 eta 2019 artean aurreztu nahi dituen 17.550 milioiekin alderatzea; iraunkortasun faktorearen sarrerak eta pentsioen eguneratze indizeak pentsiodunen eros ahalmena nabarmen jaitziko du, eta finantza sektoreak utzitako zuloaren zati txiki bat bakarrik estaltzeko balioko du. Gainerakoa, egunero pairatzea tokatuko zaigun beste murrizketa batzuekin finantzatuko da.

4. ENPLEGU POLITIKAK AZPIKONTRATATUTA JARRAITZEN DU NAFARROAN

Pasa den ostiralean, hilak 27, elkarrizketa sozialeko antzerkiaren saio berri bat antzetzu zen. Barcinaren Gobernuak asko eskertu zuena, aire garbia ematea suposatzen baitu bere alboan inor ez duen Gobernuari, UGT, CCOO eta CEN izan ezik.

Bilera horretan Etengabeko Elkarrizketa eta

Hitzarmen Mahaiaren sorrera iragarri zen, UGT, CCOO, CEN eta Nafarroako Gobernuak osatuko dutena. Mahai hau kontsultarako batzorde bat izango da, eta bere "eskumenak enpleguarekin eta lan harremanekin izango dute zerikusia".

Laburbilduz Mahai honek ez du inongo berrikuntzarik suposatuko bertan landuko diren gaiengatik, berritasuna "elkarrizketa sozialean sakontzea" eta "egungo egoerari arduraz erantzuteko elkarrizketa sozialaren markoa sendotzea helburu" duen "etengabeko eta maila goreneko" gune bat sortzea da. Beraz ardura kontua besterik ez da.

Honek esan nahi du UGT, CCOO eta CEN erakundeek Barcinaren Gobernuarekin elkarrizketarako eta negoziatorako etengabeko "organo" bat izango dutela. Bertan maneiatzekoak diren "azterketarako eta negoziatorako gaiak" ezarriak dituzte, hala nola, premiazko neurriak ekonomian, fiskalitatean eta gizarte arloan, Enplegu Politika Aktiboak (NEZ eta lanbide heziketa kasu), berdintasun politikak, lan osasuna, ingurumena eta jasagarritasuna, instituzioetan parte hartzeko markoa, eta abar. Beraz honek suposatzen du Gobernuak erakunde hauei enplegu politikan zerikusia duten erabakietan beraien partaidetza bermatzen diela.

Egin litekeen irakurketa bat gai honekin denek irabazten dutela da. Barcinak aire garbia jasotzen duelako gaizkien pasatzen ari den unean, eta bere Gobernuaren bakardadearekin hausten duen argazkia jasotzen duelako. UGT, CCOO eta CEN erakundeek eremu publikoan hartutakoak behar luketen erabakietan partaidetza kuota garrantzitsua bermatzen dutelako, eta bide batez elkarrizketa sozialak eta honen inguruko guztiak irauteko helburua betetzen dutelako. Zerbait ematen da zerbait jasotzeko.

Baina politika egiteko modu hau ez da inondik inora berria Nafarroan. Nahiz eta orain itxura irmo

bat eman, urte asko daramatzagu elkarrizketa sozialaren fruitu den enplegu politika jasaten. Bere alderdi guztietan porrot egin duen politika; langabezia tasa % 16,8koa da 50.00 langabetu baino gehiagorekin, zeinetatik % 40k ez duen inolako prestaziorik jasotzen, sinatzen diren kontratuen % 95a behin-behinekoak dira, Erregulazio Espediente guztiak onartu izan dituzte, ez dago inolako plangintzarik enpleguari dagokionean... Elkarrizketa sozialak porrot egin du gauza guztietan, batean izan ezik, bere iraupenean.

5. PROPOSAMENA: ZORRETAN EZ BAGAUDE, EZ DUGU ORDAINDUKO!!! ZORRAREN HERRI-AUDITORIA ORAIN!!!

Zorra hitza entzun bezain laster, zerbait itzultzeko beharra datorkigu burura. Zorretan bagaude, ordaindu beharko dugu, hori baita gure betebeharrak morala —pentsatzen dugu—. Pentsamolde horrek ez du kontuan hartzen zorpetzearen gaineko ikuspegi politikoa; eta funtsezkoa da galdetzea ea zor hori zilegi ote den. Zergatik sortu da zorra? Nolakoa da alderdi hartzekodunaren erantzukizuna? Eztabaida hori ostendu egin dute, nahita, botere publikoek, botere finantzarioek eta komunikabide nagusiek. Hala ere, behar-beharrezkoa da zorraren zilegitasuna begiratzea.

Ez dituzte aztertu nahi izan zorpetzearen benetako arrazoiak. Finantza-erakundeek kreditu handia eman zuten etxegintza-negoziorako, eta higiezinaren burbuila itzela sortu zen. Helburua dirutza handia irabaztea zen, eta irabazi egin zuten. Gobernuak utzi egin zieten. Ez zitzaion axola handirik etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea goitik behera urratu izatea. Ezta jendea leporaino zorpeturik uztea ere. Eta burbuila lehertu eta oraingo krisia sortu zenean, zor pribatua arlo publikoaren bizkar gainean utzi zuten (gobernu espainiarrak, esaterako, 2012an ia 40.000 milioi euro eman zion bankari, eta

ondorioz munta bereko defizita eta zor publikoa sortu ziren). Krisia sortu dutenek ez dituzte ondorioak ordaindu nahi. Urte luzetan bakan batzuen negozioa izandakoa gizarte gehienaren porrot bilakatu da.

“Zorkrazia” esanguratsua da oso. Oraingo politikariek eta agintariek lehentasuna ematen diote zor publikoa ordaintzeari, jatorriz izaera pribatua duen arren; eta horrela herritarrak zordun bihurtzen dituzte, eta zama hori bereziki astuna egiten zaie zigortuen dauden gizarte-taldeei (langabeei, pentsiodunei, emakumei, etorkinei...), prestazio sozialen murrizketa jasan behar izan baitute. Egoera horren eraginez prezio garestiegiak ordaindu behar izan dira oinarrizko produktu eta zerbitzuengatik, zerbitzu publikoetan gabeziak eta murrizketak jasan behar izan dira, eta natur baliabideak neurritz gainezka ustiatu behar izan dira, ingurumenean eta gizartean nekez konponduko diren kalteak eraginda. Eta hori guztia onuradun bakar baten mesedetan: kapitala.

Zor publikoa interes kolektiboak finantzatzeko tresna bat izan beharko litzateke, eta ez sektore finantzario pribatura baliabide publikoak eskualdatzeko tresna. Horregatik, sare hori ulertzeko, funtsezkoa da jakitea nork hartu duen zorra, norekin, zertarako eta zein baldintzatan.

Zeren... Bankara bideratu den guztia gehi interesak zor publiko moduan ordaintzen jarraitu behar dugu? Eta eztabaida sozialik egin barik ezarri dizkiguten azpiegitura handiak finantzatzen gastatutakoa? Eta errenta handien eta kapitalaren mesedetan egindako politika fiskalaren ondorioz sorturikoa? Bidezkoa al da? Bidezkoa al da familia bat etxegabetzea, etxegintzaren boomaren biktima izanik diru-sarrerarik ez duelako, edo dituenak abusuzko hipoteka-kreditua ordaintzeko nahikoak ez direlako? Labur esanda, jarraitu behar dugu ordaintzen besterik gabe, ondorioak neurritz gainekoak izan arren?

Datuak oso esanguratsuak dira: osasunean gastu publikoa %3,7 murriztu da 2009 eta 2012 bitartean, eta hezkuntzan gastu publikoa %8,6, bitartean, zorra %178,6 gehitu da.

Harantzago joan behar gara. Zorrak egoera sozio-ekonomikoa islatzen du. Zor publikoa ordaintzeko gastua handitu denez, gastu soziala gutxitu dute. Zor publikoa ordaintzera gero eta diru-baliabide gehiago bideratzea aukera politiko bat da, ez nolana hikoia, langabezia, txirotasuna, babesgabezia, desilusio eta asaldura soziala sortzen baititu.

ELAk argi ikusten du herri-erakundeei gardentasun osoa eskatzeko beharra, baita zor publikoari dagokionez ere. Horregatik, hona hemen gure eskakizunak:

- Erakundeei (eta finantza-sektoreari) argibide zehatzak eskatzen dizkiegu, zor publikoen izaera eta jatorriari buruz.
- Herri-auditoria publikoak ezarri behar zaizkie bai gobernuei, bai finantza-interesei; ondorioz jakiteko ea zorrak legezko eta zilegi diren edo ez.
- Legezko edo zilegi ez diren zorren kasuan, ez dira ordaindu behar. Gainerako kasuetan berriro negoziatu behar dira, dauden baliabideen lehentasuna kontuan hartuz.
- Prozesu hori garatu bitartean zorraren ordaintzaren atzerapena aztertuko da.
- Aipaturiko bidean indarrak batu behar dira, gure korrelazioa hobetze aldera, eta garrantzi handia eman behar zaie bai gizarteratzeko beharrari, eta baita partaidetza sozial zabalari eta anitzari irekita egoteko beharrari ere.

Oraingo sistemak larriagotu baino ez ditu egin bidegabekeria ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak, eta gainera ongizate-estatu urratu du. Oraingo egoera jasangaitza da, eta

irauli behar dugu, gure esku dago-eta. Zorraren herri-auditoria bultzatzeak eta zilegi ez den zatia ordaindu gabe uzteak talka egiten dute oraingo eredu neoliberalarekin. Lehentasuna ematen zaie jendearen beharriari, kapitalaren interesen aurretik. Dena dela, hori ere ez da nahikoa.

Ezinbestekoa eta premiatsua da erabateko aldaketa egitea oraingo eredu ekonomikoari. Nola? Erreforma fiskal drastikoa eginez, finantza-sektorea zorrozki arautuz (banka publikoaren aldeko apustua, espekulazioa debekatzea), beste

eredu batzuk ezarriz (ekoiztekoa, banatzekoa eta kontsumokoa), eta abar. Azken batean oraingo eredu kapitalista gainditu behar dugu, baliabide mugatuak gero eta gehiago erabiltzean oinarritzen baita. Zorraren herri-auditoria abiapuntua da erabateko aldaketa hori bultzatzeko.

ZORRETAN EZ BAGAUDE, EZ DUGU
ORDAINDUKO!!!

ZORRAREN HERRI-AUDITORIA ORAIN!!!

AZTERKETA BULEGOA